


ALDE ZAHARRA

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emango ditu etxeak berritzeko

Kale Nagusia, Kardaberaz eta Atzietako etxeak sartzan dira planean; Portuko 6 eta 12 portalak, Napar Kaleko 12a eta Lizeagako 1 eta 3a ere bai.



Kardaberaz kalea atzo arratsaldean. Etxea berritu nahi duenak orain du pareko aukera.

HERNANIKO alde zaharrak antolaketa historikoa du, eta bertako zenbait etxe ere *ondare historikoa* dira. Kaxkoa beti bezelakoxea mantentzeko, Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emango ditu, kanpotik nahiz barrutik, etxeak berritzen dituztenenetzat.

BALDINTZAK

Alde zaharrean egon behar du berrikuntzak egingo diren etxeak. Laguntzak (interes bajuko kredituak eta diru laguntzak), etxearen neurriak eta familiako diru sarrerak

kontuan hartuta emango dira, baina beti ere, presupuestoa muga batetik gorakoa denean.

Eskaria egiten dutenek, ezingo dituzte lanak hasi Eusko Jaurlaritzak baimena eman aurretik; gainontzean, diru laguntza kenduko baitiete.

PAPERAK UDALETXEAN

Udalak dudak argitzeko eta eskaerak bideratzeko zerbitzu bat jarri du martxan. Interesatuak Astelehenetan 08:00-13:00era udaletxeko hirigintza batzordetik pasa edo 943-555950 telefonora deitu eta Amaia Minerrengatik galdetu. □

Musika eskolan lekua dago oraindik

Hastapenetan (7 urteko umeentzat) 5 plaza daude, tronpeta jotzeko 2 plaza eta dultzainarako bat. Izena emateko musika eskolatik pasa.

Asteazkenean bestalde, bilera izango da musika eskolan izena eman duten haurren gurasoekin. Biteri kultur etxean 19:00etan. □

TXILLIDAREN MUSEOA ZABALAGAN

Gaur inauguratuko dute Espainiako Errege-Erreginak

Hernaniko Udalak eskertu du Txillidaren gonbidapena, baina, Borboiei ez die ongi etorririk egingo.



EH-ko botoekin onartu zen mozioa. Oposizioa ez zen azaldu.

JUAN CARLOS I eta Sofia, Espainiako Errege-Erreginek bihar eguerdian zapalduko dute Hernani, Txillidaren museoaren iraugurazioan. Udalak atzoko pleno berezian onartu zuen ez borbondarrei eta ez Aznar presidenteari ez diela ongi etorririk egingo. Ez behintzat "gure herriaren eskubideak onartu eta gauzatzeko bideak jartzen ez dituzten bitartean." Schröder kan-

tziller alemanari berriz, "egonaldi atsegina" opa dio.

Bestalde Hernaniko Ezker Abertzaleak mobilizazioak konbokatatu ditu: 09:30 kotxe karabana Atsegindegina *Decathlonera* joateko. 20:00etan berriz, eskualdeko manifestazioa aterako da plazatik. Erantzak jakinarazi duenez, Errekalderako bidea itxi egingo dute goizetik arratsaldea bitartean. □

PELOTA

Hernani Baztanen kontra Herri artekoa txapelketan

Nafarroako, Bizkaiako, Arabako eta Gipuzkoako herriarte txapelketan jokatu dute.

HERNANIK Euskal Herri mailako Herri artekoari ekingo dio gaur. Hala ere, ez du lehengo taldeak jokatu. Bi baja ditu herri-artekoaz gero, profesional egin den Josu Oiaga eta pelota utzi duen Arkaitz Santa

Kruz. Gaur, Yubero eta Alvarezek jokatu dute kadetetan, Zabala eta San Sebastian edo Mendizabalek jubentzetan eta Zabala eta Erroizeneak nagusietan. Partiduak 16:30etan izango dira Tilosetan. □

LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia

Sagardo naturala
URTE OSOAN BOTILAN SALGAI
Tel. 943 55 58 46

LARRE-GAIN BASERRIA . EREÑOTZU - HERNANI

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6
☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

IKASTAROA	DATA	HIZKUNTZA	ORDUTEGIA
WINDOWS + WORD 2000	Urriaren 28ik 6ra	Euskeraz	16ik 20ra
Microsoft EXCEL 2000	Urriaren 16ik 20ra	Euskeraz	16ik 20ra
Microsoft ACCESS 2000	Urriaren 23ik 27ra	Euskeraz	16ik 20ra
WINDOWS + WORD 2000	Urriak 21ik Azaroak 11ra	Gazteleeraz	9ik 14ra
INTERNET	Azaroaren 13ik 17ra	Euskeraz	16ik 20ra
FRONTPAGE 2000	Azaroaren 20ik 24ra	Euskeraz	16ik 20ra

INFORMAZIO GEHIAGO:
Larramendi kalea 11, 20120 HERNANI. Tfnoa: 943551000
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 15tik 22ra. Larunbatak 9tik 14ra.

TXANTXANGORRI ELKARTEA

'Rufino' txapeldun XVII Sagardo lehiaketan

Denera, 170 lagun bildu zen afaltzera. Jendeak gustora gelditu zen.



Agustin Urretabizkaia aurkezlea sagardogile saridunekin Txantxangorri. Ezkerretik: Juanito Goikoetxea, Manuel Astarbe, Rufino Izagirre eta Simon Etxeberria.

SAGARDO giroa ederra izan zen ostegunean Txantxangorri elkarteko Sagardo lehiaketan. Denera, hamarna laguneko hamasei mahai jan, edan eta beren botoa emateko pronto. Sagargogileak, berriz, hamabost: Herrero, Barkaiztegi, Petrítegi, Eula, Altzueta, Rufino, Otsu-

enea, Oiarbide, Eizmendi, Iparragirre, Alberro, Zelaia, Bereziartua, Astarbe eta Txintxua. Hamarrak alderako afaltzera bildu zirenek emana zuten berediktoa. Denerako zurrumuruak entzuten ziren: "Onak, onak, sagardo onak". "Aurten ba-tzuk huts egin dute" beste

batek baju samar. *Aterpe* eta *Garin* bertsolariek bota zituzten bertsotan irabazleen izenak:

SAGARDO SARITUAK

- 1- Rufino-----1193 puntu
- 2- Otsuaenea----1131 puntu
- 3- Astarbe -----1105 puntu
- 4- Altzueta-----1099 puntu

EUSKALTEGIAK

"Euskaraz ikasita asko dago irabazteko"

Hala esan zuen Imanol Beroitz Euskara saileko buruak herriko bi euskaltegiekin batera emandako prentsaurrekoan. AEKk eta Udal Euskaltegiak urrats guztiak eta EGA eskaintzen dituzte, bakoitzaren barnetegi eta irteerak ere tartean direla. Informazio gehiago nahiduenak jo dezala bi euskaltegiara: Udal Euskaltegia: ☎ 943-331896. AEK ☎ 943-557801.



Intxauspe (AEK) Beroitz (Zinegotzia) eta Arbelaitz (UE).



HITZ BITAN

✓ ERRUGBIA

Lagunarteko partiduak izango dira gaur eta bihar Landaren. Nagusiek gaur jokatu dute 16:30etan Irunen kontra; Neskek eta mutilezko kadeteek bihar 10:30etan Baionaren kontra eta mutilezko jubenilek bihar 11:30etan, hauek ere Baionaren kontra.

✓ OMENALDIA

Gaur ereñotzuarrek Juanito Oiarbide Txilibita omenduko dute, hil zuteneko 11. urteurrenean. Goizeko zortzietan aterako dira Onddiko oroigarria; Eguerdiko ordubatean lore eskaintza egingo zaio Ereñotzuko Txilibita enparantzan eta gero bazkaria izango da. Sarrerak *Onyi*, *Aralar*, *Garin*, *Txilin* eta Ereñotzun bertan daude salgai 2.500 pezetan.

✓ TXALAPARTA

Txalaparta ikastaroak emango ditu Zurartean taldeak. Astean ordu betez (goiz edo arratsalde) izango dira klaseak Hernanin. Informazio gehiagorako ☎ 658 709430.

✓ IGERIKETA

Kiroldegian 3 eta 4 urteko haurrentzat igeriketa ikastaroak antolatuta dira. Izena emateko irailaren 20an (asteazkena) goizeko zazpietatik aurrera Kiroldegira azaldu.

Informazioa: ☎ 943 552185.

✓ FUTBOLA

Hernaniko taldeek ligako partiduak dituzte gaur eta bihar. Gaur: gorengoen mailakoek Erreterian jokatu dute 18:00etan; emakumezkoen ligakoek Zubipen 19:00etan Luberrin kontra; gazteen liga nazionalekoek Zubipen 17:00etan Errealaren kontra; gazteen ohorezko ligakoek Pasai Antxon 18:30etan; gazteen bigarren mailakoek Lasarten 15:30etan; eta bigarren mailako kadeteek Zubipen 12:00etan Intxurreren kontra. 3.mailako taldeak bihar jokatu du 18:30 etan Zallan. □

A G E N D A

❖ **ERAKUSKETAK**
Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udalaletxean bertan,
12:00-14:00.
18:00-20:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren
Kuadroak.xema taberan.



Joaquin Fdez. de Ayarragaray.

HERIOTZAK

Antonio Rubio Pino
Abuztuaren 18an hil zen 78 urte zituela.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Bulnes Etxeberri auzoa, ☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

▶ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizean 2 orduz. Arratsaldetan deitu. Tel: 943 55 25 41.